

Diseinatzaile gazteen lan-poltsa berritzeko deialdia

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2022an sortuko diren lanak antolatzen. Lan poltsa osatuko da izena eman eta aukeratu diren diseinatzaileekin eta, urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz.

Egin beharreko lanak

Hauek dira 2022an zehar EGK-k beharko dituen lanak diseinuaren arloan:

- EGKren lan-arloek egunerokoan eta ekitaldien bidez garatutako txostenen maketazio eta diseinua.
- Proiektu edo egitasmo zehatzak zabaltzeko irudi sinbolikoak.
- EGKren ekintzen zabalpenerako euskarri eta material grafikoak: kartelak, esku-orriak, liburuxkak.
- Kanpaina eta deialdi konkretuak egiteko ikus-entzunezko produktuak.
- Antolatutako ekitaldien laburpen bideoak.

Porfolian egindako antzeko lanak aurkeztu behar dira.

Balorazioa

Aurkeztu diren proposamenen artean, aurretik egindako antzeko lanen porfolioa baloratuko da. Parte hartzen duten pertsonak edo enpresek, derrigorrez **fakturatzeko gaitasuna izan behar dute**.

Gainera baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz (C1 edo parekorik) lan egiteko gaitasuna. Maila altua.
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo EGKrekin loturaren bat izatea.
- EGKren estiloa, terminologia eta izaera ezagutzea

Epeak

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere curriculum eta porfolioa aurkeztu behar dute 2022ko abenduaren 23ko eguerdiko 12.00ak baino lehen *Diseinatzaile gazteak* gaiarekin **komunika@egk.eus** helbidera bidaliz. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren ala ez. Informazio gehiago jakiteko, **944436143 / 688675932** telefonora deitu edo **komunika@egk.eus** helbidera idatzi.